AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSASUN SAILA

3966

AGINDUA, 2013ko irailaren 4koa, Osasuneko sailburuarena, M.ª José Arrien Luzurraga andrea ondoren zehazten den kargutik kentzea xedatzen duena. Kargua: Osasun Saileko Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzan zuzendariordearen lanpostua, 511846 kodea, 6 dotazioa.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeko 50.2 artikuluan xedatutakoaren arabera eta lege horren 10.1.c artikuluari jarraituz ematen zaizkidan aginpideez baliatuz, hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Osasun saileko Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzan zuzendariorde den M.ª José Arrien Luzurraga andrea kargutik kentzea (511846 kodea, 6 dotazioa), eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Kargutik kentze honek ondorio ekonomiko eta administratiboak izango ditu 2013ko abuztuaren 13tik aurrera.

Hirugarrena.– Administrazio-bideari amaiera ematen dion Agindu honen aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez daiteke eman duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazpena EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere aurkez daiteke, Administrazioarekiko Auzietako Epaitegiaren aurrean, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita, bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko irailaren 4a.

Osasuneko sailburua,
JON DARPÓN SIERRA.